

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

“2024an Vitoria-Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak” udal programaren deialdiaren ebazpena

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4 artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko urriaren 18ko erabakia, zeinaren bitartez “2024an Vitoria-Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak” udal programaren deialdia ebatzi baitzen, eta eduki hau baitu:

I. 2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

II. 2024ko apirilaren 12an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak “2024an Vitoria-Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak” udal programaren oinarri espezifikoak eta deialdi publikoa, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Udal Sailak proposatuta. Deialdi hori norgehiagoka-sistemaren bidez izapidetu da, Vitoria-Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak (fikzioa, animazioa, dokumentalak, esperimentala nahiz telesailak) garatu eta ekoizteko eta zinema-gidoiak idatz daitezkeen. Ehun mila euroko (100.000,00 euro) zuzkidura du, 2024rako onartutako udal aurrekontuko 2024/0821.4331.471.02 partidaren (“Sorkuntzarekin eta ikus-entzunezkoekin lotutako industrientzako laguntzak”) erabilgarri dagoen saldoaren kargura.

III. 2024ko ekainaren 12an amaitu zen eskabideak aurkezteko epea (6. oinarria), eta Udaleko Enpresa Zerbitzuko teknikariek jakinarazi zuten hogeita bederatzi (29) eskabide jaso zituztela epe barruan, deialdiaren 3 modalitateetarako: 14 eskabide proiektuak garatzeko modalitatean, 19 eskabide film laburrak ekoizteko modalitatean eta 6 eskabide gidoiak idazteko modalitatean.

IV. Deialdiaren oinarrietan eskatutako betekizunak betetzen zituztela egiaztatu eta gero, balioespen batzorde teknikoak 2024ko irailaren 3an egindako bileran aztertu eta eztabaidatu ziren. Aurkeztutako proiektuak balioetsi eta lehenetsi ondoren, deialdia ebatzeko proposamena aurkeztu zitzaion Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari, ebazpen honen xedapen-zatian adierazitako terminoetan.

Dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa (50 puntu) lortu duten proiektuek, guztizko puntuazioaren araberrako hurrenkerari jarraituz, dirulaguntza jasoko dute modalitate bakoitzean erabilgarri dagoen 2024/0821.4331.4.7102 aurrekontu-partidaren (“Sorkuntzarekin eta ikus-entzunezkoekin lotutako industrientzako laguntzak”) aurrekontu-kreditua (100.000,00 euro) agortu arte, eta honela banatuko da:

- Film luzeen eta telesailen proiektuak garatzeko laguntzak – 50.000,00 euro.
- Film laburrak ekoizteko laguntzak – 40.000,00 euro.
- Gidoiak idazteko laguntzak – 10.000,00 euro.

Tokiko Gobernu Batzarrak du dirulaguntzak emateko eskumena, haren egitekoa baita kudeaketa ekonomikoa eta, beraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa bideratzea, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legeak – Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak emandako idazkuntzan – 127. artikuluan 1.g) eta 2 apartatuetan eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 8.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, eta balioespen batzorde teknikoak egindako proposamena aintzat harturik; eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko eskumenak eskuordetzeko erabakia aintzat harturik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak Tokiko Gobernu Batzarrari aurkezten dio honako,

ERABAKIA

Lehenengoa. Deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizunak ez dituztela betetzen egiaztatu ondoren, honako hauei ukatzea “2024an Vitoria-Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidioiak idazteko laguntzak” udal programaren laguntza ekonomikoak:

Ukatutako laguntzen zerrenda:

UKATUTAKO LAGUNTZEN ZERRENDA				
1. IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAK GARATZEKO LAGUNTZAK				
Nº	ESKATZAILEA	IZENBURUA	PUNTUAZIOA	UKATZEKO ARRAZIOA
1	B01583400	De cotard	49,5	17. A.3. Oinarria. 2. Puntua Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
2	A61645958	Ópera	47,92	17. A.3. Oinarria. 2. Puntua Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
3	44675575F	Aire. La suerte de las tortugas	44,29	17. A.3. Oinarria. 2. Puntua Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
4	30666890R	Sasia	39,33	17. A.3. Oinarria. 2. Puntua Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu

2. IKUS-ENTZUNEZKOAK EKOIZTEKO LAGUNTZAK: FILM LABURRAK				
Nº	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	PUNTUAZIOA	UKATZEKO ARRAZIOA
5	34277839L	Bekainak	–	4. Oinarria: Ez du helbide sozialik edota fiskalik Gasteizen
6	44675575F	White Friday	49,55	17. B.3 Oinarria. 2. Puntua: Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
7	B06611818	El carné (des)madre	46,14	17. B.3 Oinarria. 2. Puntua: Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
8	B01579127	El carné (remake)	44,64	17. B.3 Oinarria. 2. Puntua: Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
9	B01579127	Cómo que abuela	43,84	17. B.3 Oinarria. 2. Puntua: Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
10	B01554922	El abuelo	43,14	17. B.3 Oinarria. 2. Puntua: Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
11	B01377464	Aziza y el último hombre bueno	43,06	17. B.3 Oinarria. 2. Puntua: Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
12	B44928406	Amak beti babestuko zaitu	36,91	17. B.3 Oinarria. 2. Puntua: Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
13	16297763D	Nekane & Beltza	36,76	17. B.3 Oinarria. 2. Puntua: Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu

3. GIDIOIAK IDAZTEKO LAGUNTZAK				
Nº	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	PUNTUAZIOA	UKATZEKO ARRAZIOA
13	Y4822817F	Mundu hobeago bat	–	6. Oinarria: Epez kanpo bidalitako eskaera
14	72743825T	Zaindaria	31,63	17. C.3. Oinarria. 2. Puntua: Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
15	18594019Z	Magda	21,65	17. C.3. Oinarria. 2. Puntua: Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
16	30666890R	Amak beti babestuko zaitu	8	17. C.3. Oinarria. 2. Puntua: Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu

Bigarrena. Deialdiko betekizunak betetzen direla egiaztatu eta aurkeztutako eskabideak balioetsi eta lehenetsi ondoren (8. eta 17. oinarriak), “2024an Vitoria-Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidioiak idazteko laguntzak” udal programaren laguntza hauek ematea onestea, adierazitako kopuruetan; horiek diru-zuzkidura agortzen dute:

Emandako laguntzen zerrenda:

EMANDAKO LAGUNTZEN ZERRENDA						
1. IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAK GARATZEKO LAGUNTZAK						
Nº	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	PUNTUAZIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	ESKATUTAKO LAGUNTZA	DIRULAGUNTZA
1	B01121706	La profecía de Amalur	79,98	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
2	B01539576	Banderizoak	75,48	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
3	B06611818	Canción animal	73,8	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
4	B01497270	Camionero	63,32	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
5	16297763D	Ingeren pampina	63,26	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
					GUZTIRA	50.000,00 €
2. FILM LABURRAK EKOIZTEKO LAGUNTZAK						
Nº	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	PUNTUAZIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	ESKATUTAKO LAGUNTZA	DIRULAGUNTZA
6	B01581024	Lo que no se ve	76,7	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
7	J55409304	El moribundo	65,52	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
8	44684081A	Lo mejor es el agua	64,35	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
9	A01043306	Déjame ir	59,22	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
					GUZTIRA	40.000,00 €
3. GIDOIAK IDAZTEKO LAGUNTZAK						
Nº	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	PUNTUAZIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	DIRULAGUNTZA	
10	72397189C	La koreana	56,79	5.000,00 €	5.000,00 €	
11	72754703E	Sirimiri	56,33	5.000,00 €	5.000,00 €	
					GUZTIRA:	10.000,00 €

Hirugarrena. Laguntza horien zenbatekoa (100.000,00 euro) 2024rako onetsitako udal aurrekontuko 0821.4331.471.02 partidaren kontura jasota uztea (5. oinarria), eta horiek ordaintzea onestea, 17. oinarrian deialdiaren modalitate ezberdinetarako xedatutakoaren ildotik. Hau da, emandako dirulaguntzen % 80 ordaintzea ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta film laburrak ekoizteko laguntzen modalitateetan, eta dirulaguntzaren ehuneko 50 ordaintzea gidioak idazteko laguntzen modalitatean. Gainerako ehuneko 20 eta ehuneko 50, hurrenez hurren, deialdiaren oinarrietan eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta Udalak oniritzia eman ondoren ordainduko da; dokumentazioa 2025eko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Laugarrena. Laguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahal izango dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako diru-kopurua itzultzeko eskatuko zaie.

Bosgarrena. Deialdiko zuzkidura ekonomikoa agortuta baldintzak betetzen dituzten zenbait proiektu laguntzarik gabe geratu denez, itxarote-zerrenda hauen sorrera onestea, modalitate bakoitzean saldoa soberan geratuz gero bertan ezarritako hurrenkeran baliatzeko:

Itxarote-zerrendako proiektuak:

ITXAROTE-ZERRENDA					
1. IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAK GARATZEKO LAGUNTZAK					
Nº	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	PUNTUAZIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	DIRULAGUNTZA
1	A78850559	Alaia	61,99	10.000,00 €	0,00 €
2	B01257856	Isaac Puente, salud y anarquía	58,78	10.000,00 €	0,00 €
3	J55409304	El asombro	56,64	10.000,00 €	0,00 €
4	72845818B	Behekoak	54,99	10.000,00 €	0,00 €
5	B01497270	Últimos días de caza	53,76	10.000,00 €	0,00 €

2. FILM LABURRAK EKOIZTEKO LAGUNTZAK					
Nº	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	PUNUAZIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	DIRULAGUNTZA
6	72845818B	La mercé	58,64	10.000,00 €	0,00 €
7	72857752P	Ilun	55,48	10.000,00 €	0,00 €
8	B01257856	Isinohana	54	10.000,00 €	0,00 €
9	Y9801735T	Hambre	53,76	10.000,00 €	0,00 €
10	B01497270	Gurma	53,75	10.000,00 €	0,00 €
11	B01583400	Zezena eta umea	53,35	10.000,00 €	0,00 €

Seigarrena. Udalaren Enpresen Zerbitzuko teknikariak izendatzea enpresa-proiektu horien jarraipenaren arduradun.

Zazpigarrena. Erabaki hau udalaren weguneko Gardentasun Atarian eta ALHAOn argitaratzea.

Zortzigarrena. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, alde zuzenetik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 21ean

Administrazio Zerbitzuko burua

JOSEBA ANDONI GARCIA-ARDANAZ ARDANAZ